JAKINTZAGAIA: **KOMUNIKAZIO TAILERRA (Koldo Mitxelenako DBH4. mailarako hautazkoa)**

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1. Ahozkoa.	1.1 Ahozko testuen zentzu orokorra, egitura eta informazio garrantzitsuena ulertzen eta interpretatzen dut. 1.2 Hainbat kazetaritza-generotako ahozko azalpenak eta argudioak diseinatzen eta egiten ditut (albistea, kronika, elkarrizketa, erreportajea, iritzia)
2. Idazmena.	2.1 Zenbait irakurketa-asmori erantzuten dioten eta nolabaiteko zailtasuna duten testu idatzien zentzu orokorra, egitura eta informazio garrantzitsuena ulertzen dut eta interpretatzen dut. 2.2 Hainbat kazetaritza-generotako idatzizko azalpenak eta argudioak diseinatzen eta grabatzen ditut (albistea, kronika, elkarrizketa, erreportajea, iritzia)
3. Informazio fidegarria hautatzea eta teknologia modu egokian erabiltzea.	3.1. Zenbait iturritako informazioa gero eta modu autonomoagoan aurkitzen, hautatzen eta kontrastatzen dut, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna kalibratuz. 3.2 Teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, iraunkor eta osasungarriko ohiturak gero eta autonomia handiagoz hartzen dut.
4. Hizkuntza errespetuz erabiltzea.	4.1 . Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak, hitzaren bidez egiten diren botere-abusuak eta hizkuntzaren erabilera manipulatzaileak identifikatzen, gaitzesten eta baztertzen ditut. 4.2 Gatazkak elkarrizketaren bidez kudeatzeko eta adostasunak bilatzeko estrategiak erabiltzen ditut.

5. Elkarlana	5.1. Motibazio positiboa eta konstantzia erakusten dut. Taldean iniziatiba eta errespetuz jokatzen dut. Taldean garatu behar diren zereginen banaketan parte hartzen dut. 5.2 Taldean ez dut diskriminaziorik onartzen, inklusiboa naiz eta entzute aktiboaren aldekoa.

EBALUAZIO TRESNAK

- Metakognizioko eskala: zer ikasi dut, zer ikasi nahi dut, zertarako.
- Jarrera proaktiboa eta lantaldea.
- Autoebaluazioa, Koebaluazioa eta Heteroebaluazioa:
    - Proiektuaren atazen behaketa.
    - Azken ekoizpenaren ebaluazioa.

OINARRIZKO JAKINTZAK

- Komunikabideen ezaugarriak. Batez ere, berriak: egunkari digitalak, podcast, sare sozialak…
- Nola hobetu komunikazio gaitasuna. Bai ahoz, bai idatziz.
- Komunikabide propioa sortu.
- Mota desberdinetako albisteak, erreportaiak eta elkarrizketak aldizkakotasunez argitaratu.
- Benetazko berriak aztertu eta ulertu.

SEKUENTZIAZIOA

Saioaren denboralizazioa:

- Lehenengo 15':
  - Asteko albisterik garrantzitsuenak. Ahozkotasuna eta hausnarketa landu.
- 35' ikaskuntza nukleoen azalpena eta garapena. (Ikusi IKAS EGOERAK)
- 5' geldialdia
- 40' proiektuaren garapena. (Ikusi IKAS EGOERAK)
- 15' metakognizioko hausnarketa

0 UNITATEA:

Ikasgaiaren aurkezpena.
Talde kohesio dinamikak
Galdetegia: "Zergatik hautatu duzu Komunikazio Tailerra"?

1. IKAS EGOERA: "KOMUNIKAZIO ENPRESA GARA"

Denboralizazioa: 3 ebaluazioetan. Hamabostean behin.
Aurkezpena (Power Point)

Komunikazio enpresa gara.
Azaldu enpresek komunikabide desberdinak dituztela: PRISA (egunkariak, irratia...) A3 MEDIA (Telebista, irratia, argitaletxeak...) FACEBOOK (Instagram, WhatsApp...)
Ikasleak 3naka edo 4naka taldekatzen dira.
Hautatu behar dute arlo bat:

- **Prentsa** (urteKMkaria, haiek sortutako aldizkaria, argazkiak...)
- **Irratia** (podcast, elkarrizketak, abestien aurkezpenak...)
- **Publizitatea** (sarrerako pantailaren informazioa, Espazio Astearen promozioa, KM Berdeak batzordearen promozioa, beste ikastetxeetako promozioak...)
- **Sare sozialak** (haiek sortzea profilak, KM profilak ofizialen kudeaketa...)

- **Telebista** (Youtuberako saioak, elkarrizketak, croma...)

Arlo bakoitzean ardura desberdinak hartu behar dute: koordinatzailea, idazlea, argazkilaria...
Arlo bakoitzean azken produktu bat sortu behar dute: egunkari digitala, artikulu bat KMWeberako, iragarki bat...

IKASKUNTZA NUKLEOAK:
(Arloko guztien ikasleek garatu behar dituztenak)
- Fake news (1. Aurkezpena + Teoria + WhatsAppeko baliabidea fake news ekiditzeko)
    - ScapeRoom.
- Clicbait
- Curación de contenidos:
- Burbuja de filtros
- Publicidad no sexista
- Albistegarritasun-ezaugarriak
- ...

Ebaluazio bakoitzean talde bakoitzak arloko proiektu bat garatu eta aurkeztuko du.

2. IKAS EGOERA: MEKANOGRAFIA

Denboralizazioa: Astero.
Hasieran 15' (izena emateko proposatutako aplikazioetan, erritmoa hartzeko...)
Ikasturtean zehar: 10'
Baliabideak: labur.eus/mecanografia

3. IKAS EGOERA: TELEBISTA

Denboralizazioa: 1 ebaluazioan. 3-4 saio.
"Gasteiztxo" programa.
(...) Sorme gelako croma aprobetxatu

4. IKAS EGOERA: BIDEOIPUINAK

Denboralizazioa: 2 ebaluazioan. 3-4 aste.
Ikasleek “bideoipuina” sortu behar dute.
Eredua: “El niño que pudo hacerlo”.
Beste eredu batzuk (21-22 ikasturtekoak)
Nola?
Taldeka 3naka.
1. IRAKURRI tokatu zaizuen ipuina (“Ipuinak”)
2. LABURTU eta berridatzi. (Nor izango da narratzailea? Nortzuk pertsonaiak?)
3. IRUDIAK BILATU (Irudiak aske)
4. AHOTSA GRABATU (DBH1-2ko irratian, edo Vocaroo edo Apps123)
5. BIDEOA EDITATU (Canva-ko txantiloiak)

5. IKAS EGOERA: TEKNO-ADIKZIOAK

Denboralizazioa: 2 ebaluazioan. 2 aste.
IKASKUNTZA NUKLEOAK:

1. astean:
   a. Zenbat ordu zaude lotuta telefonoari? (Nola jakin) + hausnarketa
   b. “Vamping teknológico”. Zer da?
   c. Sinatuko zenukete akordio hau? Zergatik?
   d. Bideo batzuk: ETBko “Uso de redes sociales”, Ibai Llanos, Rubius,
   e. GABON-GABOFF ERRONKA

2. astean:
   a. GABON-GABOFF ERRONKA egin ondoren, hausnarketa. (21-22)

6. IKAS EGOERA: INTERNETEKO SEGURTASUNA

Denboralizazioa: 3 ebaluazioan. ordu 1

- "Space Shelter" jolasa. + Hausnarketa

7. IKAS EGOERA: AITITE-AMAMA KLASEAN

Denboralizazioa: 2 eta 3 ebaluazioetan: "A demanda"

- Ikasleak aitite-amamari proposatzen dio klasera etortzea.
- Bilobak aurkezpena eta elkarrizketa prestatzen du.
- Beste ikasleek solasaldia entzun ondoren beste galdera batzuk botatzen dizkiote.

8. IKAS EGOERA: IRRATIA

Denboralizazioa: Ikasturtean zehar. Ahal denean.

a) Irratiko kazetaria klasera etortzea irratsaio egitera.
b) Gu irratira joatea irratsaioan parte hartzera edo ikustera.

9. IKAS EGOERA: WIKIPEDIA

Denboralizazioa: 3. ebaluazioan. 3 aste

a) Azaldu nola sartzen diren "sarrerak" Wikipedian.
    i) Koldo Mitxelena BHI euskaraz dago. Gazteleraz ez. Guk egin behar dugu.
    ii) Zer falta da Wikipedian? Asmatu, idatzi, zuzendu eta sartu.

::: GARATZEKE :::

X. IKAS EGOERA: JENDE AURREAN HITZ EGITEKO ESTRATEGIAK

Alegoria liburua: https://editorialalegoria.hflip.co/631fd4c969.html

X. IKAS EGOERA: IDAZMEN TAILERRA

X. IKAS EGOERA: ZINEMAKO DOBLAJEA (materiala)

X. IKAS EGOERA: SARRERAKO PANTAILAK (Publizitatea)

X. IKAS EGOERA: LAS NOTICIAS DE LA SEMANA

- Grabatu 3.4 minutuko podcasta asteko berriak garrantzitsuenak (ikasleentzat) laburtuz eta azaltzen.

Sergio Tejero, Koldo Mitxelena BHIko "BeA" (Berrikuntza metodologikoaren Arduraduna)-(r)en 'KMk',
Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.

Jatorrizko informazioa eta legedia, Hezigunean.